

Abenduko 1. Igandea A

121. Salmoa

L.a. 112 / S.a. 26

(5+4 / 5+4)



Piztu naiz, piztu, baitut entzun:
Goazen Jaunaren etxeraino.

Piztu naiz, piztu, baitut entzun:
Goazen Jaunaren etxeraino.
Hara non orai bagaitutzun,
Jerusaleme, atetan so.

Jerusaleme, hiri gaitza.
Denen biltzaile den bihotza
Jaunaren haurrak, haurrak oro,
Horrat doatzi lerro lerro.

Jaun izenari zor bezala,
Kantatu behar diotela.
Hor du zuzenak zuzen alki,
Dabiden semeak hor egoki.

Jerusalemek, otoi, bake.
Zuri daudenak bozik beude.
Bake dadila zure baitan,
Egun gozoak jauretxetan.

Anaien eta denen alde,
Otoizka diot: zuri bake!
Jaingo Jaunaren etxeari,
Zerutik, otoi, on-iturri.